

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko ekainaren 12a. IX. urtea. 2.365. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Joan Marc Simon Europako Zero Zabor mugimenduaren koordinatzailea

«Gipuzkoan, egun, 200 mila hondakin tona baino gehiago sortzen dira»

Herrialdeko hondakin kopurua jaitsi behar dela dio Simonek; hitzaldia eskaini berri du Tolosako kultur etxean, Gipuzkoako Foru Aldundiak gonbidatuta

Aldundiaren enkarguz 2008ko Gipuzkoako hondakin kudeaketarako plana eguneratu du; «gaikako bilketarekin 2020rako 80.000 tonara jaitsiko ditugu hondakinak» **03**



Tolosako udal gobernuak lehen urteko balantze positiboa egin du

Herri bizia nahi dutela eta horregatik eztabaida ona dela diote; «zenbaitek izua eta alarmismoa darabilten arren, bide horretan jarraituko dugu herritar aktiboak nahi ditugulako» **02**

Gaztañaga: «Emitza honen atzetik entrenamendu asko dago»

Tolosaldea Triatloi Taldeko kirolariak, nahiz eta ez izan profesionala, Zarauzko triatloia irabazi du; Aimar Agirrerasobe tolosarrak zazpigarren egin du **07**

Lizaso segalariak erraz irabazi du Gipuzkoako Txapelketa

Asteasuarrak oso egun ona izan zuela esan du; herri berean bizi den Donostiako Alkorta izan da bigarren eta Amasako Etxeberria hirugarren **06**

Larramendi Auzoko Urbanizazioa

5 minutu auzo bat eraikitzeko

Parte hartu!

Ekainaren 16an, auzo kontsulta • Eman botoa!



TOLOSAKO UDALA

Aldaketa nabarmendu du udal gobernuak, urte beteko bidean

Tolosako udal gobernuak iazko ekainetik hona egindako bidea gogora ekarri du

Itzea Urkizu

Iazko ekainaren 11n Tolosako udal gobernu berriak agintea hartu zuenez geroztik, urte osoan egindako bidea «positibo» izan dela azaldu dute Bildu eta Aralar-ko udal ordezkariak, «egoerak eskatzen zuten aldaketa» gauzatu dutela nabarmenduz.

Ibai Iriarte alkateaz gain, Lore Agirre, Hasier De los Rios, Edurne Mendia eta Inaki Irazabalbeitia zinegotziak ere, Tolosako Udaleko batzorde eta sailei buruzko balorazioaz aritu ziren.

Iriartek, duela urte beteko aldaketa azpimarratu zuen: «Aldaketa gauzatzen urte osoa daramagu, izan ere, egoerak gobernu sendoagoa eskatzen zuten, alde batetik; sendoa, bateratua, indartsua eta berria. Bestalde, gure nahiak eta helburuak beste era batean kudeatzen hasi ginen, eta elkarrizketa eta adostasunak bilatzeko ahalegina egin dugun».

Bide honetan, eredu parte hartzaileen gauzatzea nabarmendu zuen Tolosako alkateak: «Demokrazia ordezkatzaitetik demokrazia parte hartzaileira jauzi egitea da gobernu honen helburua, jaki-

nik hori ez dela egun batetik bestera lortzen. Demokrazia eredu berriek herritarren parte hartzea ezinbesteko dute, erakundeekin elkarlanean». Horrela beraz, urte osoan parte hartzea sustatzeko egindako jarduera nahiz ekimenak gogora ekarri zituzten agerraldian: «Gobernuaren lehen 100 egunen batzarra, plan ekonomiko-finantziarioaren aurkezpena, kultur eragileen sarea sortzeko bilerak, landa auzoekiko harreman zuzena, Berazubiko auzotarrarekin egindako batzarra eta Amaroako auzo elkartearekin elkarlan iraunkorra».

Euskal Herriko eta Tolosako garai berriak ere aipatu zituen

Aldaketak ekarritako eztabaida positibotzat jo dute, «herri bizia» nahi baitute

Ibai Iriartek: «Aieteko adierazpena, ETArek adierazpena eta Gernikako akordioa dira horren erakusle. Udal honek eragile aktibo izan behar du gatazkaren kudeaketan eta konponbidean». Helburu horri begira, agintean darabaten urtean preso eta errefuxiatuen eskubideak eskatzeaz gain, «gatazka politikoak eragindako biktima guztiekiko begirunea» izan dutela azaldu zuen alkateak; memoria historiko osoaren aldeko ekimenak ere gogora ekarri zituen. Aldaketaren hariari tiraz,



De los Rios, Agirre, Iriarte, Irazabalbeitia eta Mendia agerraldian. I. URKIZU

aldaketa soziala eta krisi ekonomikoa hizpide izan ziren balantzean. Udal gobernuaren ustez, krisia sistemarena da, eta ez egoeraren arabera. «Betiko errezeptek ez dute balio, eta eskuineko alderdiek proposatutako murrizketa sozialek ere ez. Ekonomiak pertsonen esku egon behar du», azaldu zuen Iriartek.

Urte osoko errepasoa amaitzeko, beren burua pozik azaldu zuten udal ordezkariak: «Pozik egoteko arrazoi asko ditugu. Gauza batzuk ondo egin ditugu, eta beste batzuk ez hain ondo, edo gaizki». Hala ere, «aldaketek beti eztabaida» ekartzen dutela nabarmendu zuten, eta interesgarritzat jo zuten: «Herri bizia nahi dugu, eta eztabaida ona da, hobetzen eta aurrera egiten laguntzen digulako. Zenbaitek izua eta alarmismoa darabilten arren, bide horretan jarraituko dugu, herri bizia eta herritak aktiboak nahi ditugulako».

↓ Udal gobernuaren urteko balantzea

OGASUNA

■ **Zorren %23ko murrizketa.** Elosegi parkearen desjabetzea, Santa Luzia eremu desjabetzea eta Berazubiko orubearen hipoteka.

GARAPEN EKONOMIKOA

■ **Eskualdeko aitzindaritza.** Lehiberri zentroaren proiektua babesteko ekimen bateratua.

PAREKIDETASUNA

■ **Indarkeriaren aurkako protokoloa.** Martxoaren 25ean Tolosan gertatutako erailketaren ondorioz, protokoloa martxan jarriko dute, eta hainbat eragilek parte hartuko dute bertan. Ikas-tetxeetan eta udal langileekin ere gai hau jorratuko dute.

HIRIGINTZA

■ **Garapen jasangarria.** Udal plangintzarako aholku batzordean eragile gehiago txertatu dituzte, eta Plan Orokorri zati-kako berrikuspina egin nahi diote.

GIZARTE POLITIKAK

■ **Izaera sozialeko gastuari lehenetasuna.** Gastu soziala mautendu edo handitzea da beren asmoa.

HIZKUNTZA POLITIKA

■ **Apustu estrategikoa.** Erabilera indartzea, bai udaletxean bertan eta baita herritarren artean ere. UEMAko kide izateko pausoak eman dituzte; ekainean emango diete erantzuna.

Ikasleek erein dute aurtengo babarruna

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Itzea Urkizu

Datorren udazkenean jasoko duten babarrun aleak erein zituzten, pasa den ostiralean, Emeterio Arrese parkeko lorategian. Urteroko moduan, babarrun ekoizleei sukaldariek, udal ordezkariak eta hainbat ikasle lagundu zieten.

Tolosako Udaleko ordezkari moduan, Hasier De los Rios, Inaki Irazabalbeitia, Joxelu Andueza eta Nuria Carbonell izan ziren babarrun aleak ereiten.

Ekitaldiko gaztetxoek, berri, Laskorain ikastolako neska-mutilak izan ziren. Joxe Mujika babarruna ekoizleak, nabarmendu egin nahi izan zuen gaur egungo gaztetxoei horrelako gauzak erakustearen garrantzia: «Zenbaitetan, babarrunak nondik datozen ere ez dute jakiten, eta



Ikasleak babarruna ereiten. I. URKIZU

modu honetara, neska-mutilek ikusi egiten dute babarrunak nola landatzen diren, eta hilabetez hilabete nola hazten diren».

Babarrun ona ekoizteko eguraldi onak duen berebiziko garrantzia ere nabarmendu zuen

Mujikak: «Lurraren kalitatea ona izatea garrantzitsua da, eta ondo zaintzea ere bai, baina eguraldi ona egiteak berebiziko garrantzia du babarruna ona izan dadin, kolorean, dizdiran nahiz zaporean».

● tolosa@hitza.info

Joan Marc Simon ◉ Europako Zero Zabor-eko kidea

Foru Aldundiak hondakinen kudeaketarako duen proposamena aurkeztu du, Tolosan; Simon Europa Zero Zabor taldeko koordinatzailea da egungo proiektua eguneratu duen etariko bat.

«Borondate politikoaren eta pedagogikoaren esku dago gaikako bilketa»

Eneritz Maiz Tolosa

Pasa den ostiralean, Tolosako kultur etxea jendez bete zen Gipuzkoako Foru Aldundiak hondakinen kudeaketaren konponbiderako prestatu duen plana ezagutzeko. Plana eguneratu du Joan Marc Simon Europa Zero Zabor taldeko koordinatzaileak, eta Ainhoa Iraola Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendariarekin batera aurkeztu zuen proiektua.

Gipuzkoako hondakinen kudeaketarako plan berria egin duzue. Zein izan da zuen egitekoa?

Foru Aldundiaren enkarguz, gaur egungo plana eguneratu dugu. Azkena, 2008. urtean egina zegoen, eta planak berrikustea eskatzen zuen. Gipuzkoak zein azpiegitura behar dituen jakiteko ikerketa bat egin dugu. Horretarako, azken urteetan eman diren aldaketa demografikoak, ekonomikoak, ... izan ditugu kontuan, eta Gipuzkoako lurraldea birziklapenean eta gaikako bilketan zero zaborrerako bidean jartzeko moduko proiektua garatu dugu. Azpiegiturak gaur egungo errealitate egokitu ditugu.

Zein dira emango diren aldaketak?

Beharrezkoa da zero zaborrera iristeko hondakinen modu bereiztuta jasotzea, gaikako bilketaren datuak igotzea, eta, batez ere,

hondakinen tratatzeko garaiak malgutasuna ematen duten azpiegiturak eraikitzea. Gaur egun, hondakinen hiru laurdenak zaborregira doaz, eta guk kopuru honi buelta emango diogu, gaika bilduaz. Aldaketa handia da, eta azpiegiturretan malgutasuna eskatzen du.

Zabortegiak itxi egingo dira. Zer egingo da birziklatu ezin denarekin?

Gaur egun, Gipuzkoan 200 mila tona hondakin baino gehiago sortzen dira, eta lehenik eta behin kopuru hori jaitsi beharra dago. Gaur egun, zabortegira doan hondakin asko eta asko birziklagarriak eta konpostagarriak dira, eta nola jaitsiko dugu kopuru hori? gaikako bilketarekin. 2020. urterako 80.000 tonara jaitea aurreikusten dugu. Kopuru hau, tratamendu mekaniko eta biologikoetatik pasa ostean, esaterako, azken urteetan eman diren aldaketa demografikoak, ekonomikoak, ... izan ditugu kontuan, eta Gipuzkoako lurraldea birziklapenean eta gaikako bilketan zero zaborrerako bidean jartzeko moduko proiektua garatu dugu.

Europa mailan egiten duzue lan. Zer egiten duzue, eta zerekarri daiteke hona?

Europako araudia errespetatuz, sistemarik egokienak direnak sortzen ahalegintzen gara, funtsean, Europan dauden esperien-

tzirik egokienak erabiliz. Bilketako sistema guztiak ezberdinak dira, eta ondo egiten denetik ikasten dugu. Helburua ahalik eta gehiena birziklatzea da, eta atea zabalik uzten diogu birziklatzeari. Geratzen den errefusa ere ahalik eta gehien gutxitzen jarraitzea da helburua. Europar Komisioko 2020rako zabortegiak itxia eta birziklagarria den guztia ezin dela erre arautu du. Hori da zero zaborrera iristeko bidea.

Zero zabor taldeen mugimendua sumatu duzu hemen?

Bai, kontzientziatutako herritarrekin egin dugu topo, eta jendeak ulertzen du. Oso garrantzitsua da zero zabor taldeek egiten duten lana, batik bat, politikoei momentu honetan Europan onenak diren ereduak jartzera animatzeko eta bultzatzeko. Proposatzen ari garenekin, Gipuzkoa, 2020. urterako Europako birziklapen tasa altuenera iristea lortu nahi da.

Gaur egungo bilketa sistematik aldaketa hau guztia egitea erraza izango da?

Teknikoki oso erraza da, eta ez dago arazorik. Ez gara ezer berria asmatzen ari. Gaikako bilketa sistemaren politika ezartzen ari gara, eta Europako herrialde garatueta horrela egiten da. Gaur guzti hau, borondate politikoaren eta pedagogiareneko esku dago.

Lau hilabeteko zigorra delitu itxurak egin zituen guardia zibilarentzat

2009. urtean Leitzan bere burua tirokatu zuen; lau hilabeteko espetxe zigorra eta 360 euroko isuna jaso ditu

Urtarrilean izan zen epaiketa, eta sententziaren aurka helegitea jar daiteke Nafarroako Lurralde Autzitegian.

Buruko arazoak

Salvador Melendezek bere burua tirokatu zuen 2009ko azaroaren 29ko goizaldean. Zaintza lanetan ari zen guardia zibila, eta ondoren bere lankideei deitu zien ETArean eraso jasan zuela esanez. Hasiera batean berri agentzia nahiz hainbat alderdi politikotako ordezkariak ontzat eman zuten daren bertsioa, baina orduke aurrera egin ahala dena muntaia izan zela argitu zen.

Epaimahaiak aintzat hartu du akusatua atentatu asmatu zuela onartu izana, baita buruko arazoak zituela eta bere izaera «histrionikoa eta mitomanikoa».

◉ leitzaldea@hitza.info

Erredakzioa Leitzaldea

Salvador Melendez guardia zibilaria lau hilabeteko espetxe zigorra eta 360 euroko isuna ezarri dio Iruñeko 3. Zigor Epaitegiak. 2009ko azaroan, ETArean atentatu baten biktima izan zela asmatzeari, delitu simulazio saiakera eta desordena publikoak egin izana egotzi dizkiote guardia zibilari.

Fiskalak zortzi hilabeteko espetxe zigorra eskatu zuen Leitzan lanean zegoen guardia zibilarentzat, atentatu bat bizi izan zuenetik buruko gaitza zuela onartuta.

martxan da Santio jaietako egitarauaren azalaren lehiaketa

Irabazleak 300 euro jasoko ditu; lanak udaleko bulegoetan aurkeztu behar dira hilaren 25a baino lehen

har dezake parte lehiaketa honetan. Kartela egiteko hainbat teknika erabili daitezke, hala nola, pintura, argazkia edota collagea. Gaia, berri, Santio Jaiak izango da. Aurkezten diren lanetan *Villabona-Santio Jaiak, uztaila 2012* testua agertzea beharrezko izango da. Gutxieneko formatua 18x24 zentimetrokoa izan behar du, eta lanek inoiz argitaratu ga-beak izan beharko dute.

Epaimahaiak, irabazlearentzat, 300 euroko sari bakarraz emango du. Lanak udaleko bulegoetan aurkeztu behar dira, eta horretarako azken eguna, hilaren 25a, astelehena, izango da.

Erredakzioa Amasa-Villabona

Azken urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere, Amasa Villabona-ko Udalak lehiaketa bidez aurreratu du herriko festak iragaritzen dituen egitarauaren azala. 2012ko Santio Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa abian jarri du dagoeneko, udalak.

Amasa-Villabonako edozeinek

◉ tolosaldean@hitza.info

Kuadrilen arteko 3x3 Street Basket Txapelketa, larunbatean

E. Maiz Tolosa

Tolosako Kuadrilen arteko XIV. Street Basket Txapelketa larunbatean izango da. TAKE Saskibaloi klubak 3x3 Street Basketeko txapelketa antolatuta du. Tolosako San Frantzisko pasealekuan jokatuko da, eta egun bateko lehiaketa izango da. 15:30ean hasi eta 21:00etan amaituko da. Izena, www.takesb.com helbidean eman behar da.

Talde bakoitzak izena emateagatik 10 euro ordaindu beharko

ditu. Sari garrantzitsuak daude jokoan; lehen sailkatuentzat lau afari Fronton jateketa eta elikagai bikainez osaturiko saski eder bat izango dira; bigarren sailkatuentzat lau afari Orue erretegi; hirugarren sailkatuek lau afari izango dituzte Beti Alai jateketa; eta laugarren postua eskuratzeko dutenek, Photokafeko lau afari tailandiarrez gozatzeko aukera izango dute.

Egun berean, alebin eta infantil mailako 3x3 Street Basket Txapelketa ere antolatuta du TAKE

Saskibaloi klubak. Tolosako Foruen Etorbidean jokatuko da. Bi mailatan banatuta dira partaideak: alebinak (2000-2001 urteetan jaiotakoak) eta infantilak (1998-1999 urteetan jaiotakoak). Egun bateko lehiaketa izango da. 09:00etan hasi eta 13:30ean amaituko da. Irabazleek, 400 euroko opari txartela jasoko dute Shanti Kirolak dendan gastatzeko, eta bigarrenek, 200 eurokoa jasoko dute. Bestalde, parte hartzen duen jokalarik bakoitzari kamisetak bat emango zaio opari gisa.

→ Laburrak

Udalaren zero zabor estrategiaz hitzaldia, gaur

'Errausketari ateak ixten' dokumentala, gaur

TOLOSA ◉ Tolosa Zero Zabor taldeak antolatuta, gaur, hilak 12, *Errausketari ateak ixten* dokumentalaren aurkezpena izango da. Kultur etxean eskainiko dute, eta 19:30ean izango da. Herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte dokumental interesgarria ikustera joatera.

AMASA-VILLABONA ◉ Gaur, hilak 12, 19:30ean, zero zabor estrategiaz hitzaldia izango da Villabonako udaletxeako areto nagusian. Kasu honetan, udalak bere ikuspuntutik aztertuko du hondakinen gaia. Ez da herritar guztiei zuzendua, eta zehazki, Elizatik hasi eta Txerminera bitartean bizi diren bizilagunentzat antolatuta dute. Bizilagun guztiei udalekietatik egiten diete hitzaldira joateko.

Amasa-Villabona



EUSKAL HERRIKO KULTURGUNEA

Hainbat kulturaren topaleku izan da Villabona azken egunetan. Udalak eta Aritzta kutur elkarteak, Nabar-Heria ekimenaren baimen, hiru eguneko aldarrikapen jala antolatuta dute Errebotte plazan. Euskal Herriaren historia eta kultura uztartzeko asmoz, hitzaldiak, bideo emanaldiak eta kantaldiak egin dituzte. [»»»»»](#)

Ibarra



DANTZARI TXIKI ETA ALURR EGUNA

Ibarra kaleetan dantzari ugari elkartu ziren larunbatean, 320 inguru, Dantzari Txiki eta Alurr Egunean. Hainbat multzotzat antolatuta, herria zeharkatu zuten. Gauen, Alurr dantza eskolako taldeak emanaldi eskaini zuten kiroldegian. Hasiera batean plaza dantza behar zuten, baina eguraldiak estalpera eraman zituen. [»»»»»](#)

Tolosa



IRUDIKATU NAHI DUZUN AUZOA

Laramendi auzoko bizilagunek euren auzoa irudikatu zuten iragan larunbatean. Arkaute parkean egin zuten jaietan. Laramendi Bizirik plataformak antolatuta zuten ekimena, eta hilaren 15an egingo den galdetokaren inguruan informazioa banatu zuten herritarren artean. B proiektuaren alde agertu dira Laramendi Bizirikoko kideak. [»»»»»](#)

Alegia



II. HERRIA KANTUAN OSPATU DUTE

2008an jarri zuten lehen aldiz herria kantuan Alegian. Bigarren edizioa, larunbatean egin zuten, lau urte beranduago, eta herritar ugari hartu zuten parte II. Herri Kantuan. Hogei emanaldi baino gehiago eskaini zituzten alegiariek, eta musika, dantza eta antzerkia uztartu zituzten bertaratu ziren gutzien gozamenerako. [»»»»»](#)

Tolosa



SINADURAK BILTZEN

Tolosa Txukun mugimenduko kideak kalean irten ziren iragan larunbatean. Trianguloa plazan euren postua jarri zuten, eta herritarren sinadurak biltzen aritu ziren bertan. Atez ateko hondakin bilketa sistemaren aurka daude Tolosa Txukun osatzen duten herri mugimenduko kideak, eta gaiaren inguruan galdetoketa egites nahi dute. Horretarako, sinadurak bildu nahi dituzte, eta horretan jarraituko dute ekaineko larunbatean, Trianguloan. [»»»»»](#)

Leizta



TXONDORRA ETA SAGARDO EGUNA

1950. urteaz geroztik ez zuten leitzarrek txondorrik egin Leiztalarran. Herria pitu izan dira, baina ostiralean, berriro Leiztalarran egites erabaki zuten. Txandaka zaintzen dute txondorra, eta jendearen joana etengabekoa da. Ospakizun honi, larunbatean, Sagardo Eguna gehitu zitzaion. 700 edalontzi baino gehiago saldu ziren bertan, giro aparta sortu zelarik herriko plazan. [»»»»»](#)

Anoeta



ORAINDIK SAN JOAN BEZPERA ETA EGUNA GELDTZEN DIRA

Anoetako Jailetako Kukuia (igande) goi bazuten ere, San Joan bezpera eta San Joan Eguna gelditzen dira oraindik festarekin amaitzeko. Hilaren 23an, besteak beste, herri afaria eta suaren inguruko jaiak dira egongo dira, eta hilaren 24ean, jubilatu eta pentasionisten bazkaria eta giza-proba, Kukuaren jaiak, ordea, igandean amaitu ziren. Azken egunean, Gorritzen animaliek jarri zuten jala goizean, txirridulari lasterretarekin batera. Aratsaldean, Anoetako Dantza Taldeak emanaldia eskaini zuten, gazteboen eskutik. Dantza ikuskizunak jarraitzen izan zuten, baina oraingoan, Kupela taldearen erritmoekin. [»»»»»](#)

Aste berdearen barruan ingurumena eta gizartea uztartuz

A. Imaz Tolosa

Tolosaldeko Aste Berdearen barruan hainbat ekimen burutu dira asteburu honetan. Tolosan, eloseperietan: azoka jarri zuten larunbatean, Trianguloan. Ekobira izateko azoka honen helburua, gizartearen ingurumen gaitan kontzientziazioa, zerbitzu eta produktu ekologikoak kontsumitzeko aukera ematea eta irumortasunaren aldetik espereztzia lokalak adieraz ematea da. Ekobiraren barruan, Zero Zabor plataformako kideek euren postua jarri zuten, atez ateko hondakin bilketa sistemaren inguruko informazioa emateko. Igandean, Zer-Kaesian, Tolosa Denboraren Bankuak Truke azoka antolatu zuen. Ekozin material aurki zitezkeen bertan, eta esperientzia eta denbora trukatzeko aukera ere jarri zuten antolatzaileek.



Ekobira eta Truke Azoka antolatuta dituzte asteburu honetan. [»»»»»](#)

1.125 euro bildu dituzte Pintxo Pote Solidarioan

A. Imaz Ibarra

Ibarrik Misió Taldeak Pintxo Pote Solidarioa antolatu zuen igandean, Berrako plazan. India, Ekuador eta Hondurazko dituzten proiektuak bultzatzeko ekonomia ematea zen helburua, eta oso gustura gelditu dira jendearren enantziarekin. Igandilaren laguntza handia ez bazuten izan ere, azkenean, 1.125 euro bildu zituzten gobernuz kanpoko erakunde kideek.

Berrako San Bartolome plazan hasi zen ekimena goizean; pintxoak, edariak, artisautza produktak, eta Ibarrik Misió Taldearen proiektuaren inguruko informazioa zegoen bertan. Haurrek ere izan zuten gozameneko tartea, izan ere, txikien artean pailazok emanaldi ederra eskaini zuten.



Ibarren Pintxo Pote Solidarioa antolatu zuten igandean. [»»»»»](#)

Birziklatze tasak



Osasunagatik
 ingurugiroak
 kezkoak gaituelako
 Ongizate arrazongatik
 Serme-olabengatik
 Arrazoi ekonomikoengatik
ondo
 egitera
goazz

Kirolak >

Berrobik eta Bidegoianek garaipena eskuratu dute Herriartekoan

I. Terradillos

Esku pilotako Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan Bidegoianek eta Berrobik garaitu egin dituzte euren aurkariak asteburuan. Itzuliko partidaren emaitzeekin jakingo da txartela noren esku geratzen den, baina litekeena da elkarren aurka jokatzera finalaurrekoa.

Andoainen jokatu zuen Berrobik Andoainen aurka iragan ostiralean. 2-1 garaitu zituzten andoaindarrak. Kadeteek 22-2 irabazi zuten, jubenilek 22-10 galdu eta nagusien mailakoek 22-11 irabazi zuten. Itzuliko partidak Berrobiko pilotalekuan izango dira, ostiralean, 19:00etan hasita.

Bidegoianek ere, 2-1eko emaitzarekin irabazi zuen. Azkoitian jokatu zuten, eta kadeteek 22-14 irabazi zituzten azkoitiarrak, jubenilek 22-7ko emaitzarekin gailendu ziren, eta nagusien mailan 22-9 galdu zuten berrobitarrek. Itzuliko ostiralean jokatu dute, Bidaniako pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Olaizolak erraz hartu du mendean Bengoetxea finalaurrekoan

I. Terradillos

Banakako Pilota Txapelketako finalaurreko partida jokatu zuten ostiralean Aimar Olaizolak eta Oinatz Bengoetxeak. 22-5eko emaitzarekin nagusitasunez irabazi zuen Olaizola II.ak. Finala Irujoren aurka jokatu du. Bigarren mailan Jaunarena leitzarrak Ezkurdiaren aurka jokatu du finala, hilaren 30ean.

Iragarki laburrak

IKASTAROAK

■ **Arte tailerra.** Sormensena arte tailer askeak Leitzan: 6 urtekin gorako haur eta gazte-txoentzat. Uztailen, 1, 2, 3 edo 4 egun, astelehenean ostegunera. Egunean 2 ordu: 10:30etik 12:30era. Izena emateko azken eguna: ekainaren 15a. Informazio gehiago: www.sormensena.blogspot.com

Hirugarren Gipuzkoako txapela jantzi du Juan Joxe Lizaso asteasuarrak

Asteasun bizi den Mikel Alkorta geratu da bigarren, eta hirugarren Garikoitz Etxeberria amasarra sailkatu da

Iñigo Terradillos Asteasu

Juan Joxe Lizaso gailendu zen herenegun Oartzunen jokatu zen Gipuzkoako Sega Txapelketan. Asteasuarrak erraz hartu zituen mendean aurkariak, hasieratik bukaerara arte jaun eta jabe izan zelarik.

Eskualdeko hiru segalari jarri zituen aurrez aurre txapelketak. 51 urteko Lizaso, Asteasun bizi den 41 urteko Mikel Alkorta donostiarra eta 29 urteko Garikoitz Etxeberria amasarra. Bada, iazko sailkapena errepikatu zen herenegun, lehen bi postuei dagokionez. Lizasok 4.408,5 kilo bildu zituen, eta bere atzetik sailkatu zen Alkortak 3.904 kilorekin, 504,5 kiloko aldea, beraz. Hirugarren egin zuen Etxeberriak 3.431,5 kilo bildu zituen, 977 gutxiago.

Segalari bakoitzak zazpina sail zituen ebakitzeko, eta Lizasori gutxi falta izan zitzaion zazpiak bukatzeko. Hain zuzen ere, asteasuarrak hartu zuen aurrea lehen sailetik, eta postu horretan jardun zuen txapelketa amaitu arte. Lehen postuan amaitu zuen, sail eta denborei dagokionez, baina txapelketa kilotara erabaki zen, ohi bezala, eta, horretan ere, aise gailendu zen Lizaso.

Bigarren postuak ere jabea izan zuen hastapenetik, Alkortak ebaki baitzituen sei sailak Etxe-



Juan Joxe Lizaso, Oartzungo Pikoketako belardian, herenegun, Gipuzkoako Sega Txapelketan. HITZA

berriak baino azkarrago. Hiru segalarietxukun ebaki zuten, eta ondorioz, ez zuten zigorrik jaso.

Oartzungo Pikoketako belardian jokatu zen neurketa. Txapelketari ekitearekin batera, euria hasi zuen, eta bukatu arte ez zuen atertu. 100 lagun inguru bildu ziren Gipuzkoako Sega Txapelketa bertatik bertara jarraituz.

Hurrengo txapelketei dagokionez, uztailaren 1ean, Gipuzkoako Azkartasuneko Sega Txapelketa jokatu du, Zizurkilan. Euskadiko Sega Txapelketako kanpora izango da, bestalde, ekainaren 30ean izango da, Erratzun (Nafarroa

Garaia), eta finala, Leitzan, uztailaren 15ean.

«Inoiz ez bezala nengoen»

«Oso pozik» dago Lizaso lortu duen garaipenarekin. Hirugarren Gipuzkoako txapela jantzi du, eta beste bi Euskadiko Txapelketa irabaziak ditu. Eta hirugarrenaren esperoan dago, izan ere, kanporaketak pasaz gero «borrokatzeko prest» dagoela azaldu du. Herenegungo proba «uste baino errazago» irabazi zuela dio, «oso sasoiko» aurkitzen baitzen. «Sekula ez dut hain egun ona izan», esan du Juan Joxe Lizasok.

↓ Sailkapena

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

- **Juan Joxe Lizaso.** 4.408,5 kilo. 50 minutu eta 30 segundotan ebaki ditu sei sail.
- **Mikel Alkorta.** 3.904 kilo. 58 minutu eta 12 segundu behar izan ditu sei sail ebakitzeko.
- **Garikoitz Etxeberria.** 3.431,5 kilo. 53 minutu eta 24 segundoko denbora behar izan du bost sail ebakitzeko.

Nafarroako eskolen arteko txapelketako finalean dira aresoarrak

Ttikiak eta kimuak mailetakoko pilotarietxak datorren igandean jokatu dute finala, Iraizotzeko frontoian

I. Terradillos

Sortzen Ikasbatuaz-ek antolatuta, Nafarroako Eskolen Arteko XIII. Pilota Txapelketako partidak jokatu ziren larunbatean eta igandean Aresoko frontoian. Aresoko Nazabal eskolako haurrak aritu ziren lehian, eta finalera sailkatzea lortu dute, parte hartu

duten eskuz binakako bi kategorietan.

Hain zuzen ere, ttikiak eta kimuak mailetan egin zuten aurrea aresoarrek. Ttikiak kategorian, Leitzako Aitor Arrarasek eta Aresoko Nazabal eskolako Hegoi Baraibarrek osatutako bikoteak jokatu du finala. Kimuak kategorian, berriz, Aresoko Nazabal eskolako Aimar Oterminek eta Hegoi Baraibarrek osatutako bikoteak jokatu du finala.

Finalak igandea, hilaren 17an, jokatu dituzte, Iraizotzeko frontoian –eguraldi txararekin Larraintzarreko frontoian–, 11:00etan hasita.

Fernandezen Telefonica Team ontzia lider da, azken aurreko etapan

Sailkapen orokorrean bigarren postuan da ibartarraren ontzia, baina oraindik 72 puntu daude jokoan

I. Terradillos Ibarra

Azken bi etapak geratzen dira Volvo Ocean Race proban. Zortzigarren etapan Lisboatik Portugalgo Lorient-eraino egingo dute nabigatzaileek, eta 1.640 miliak burututa, ostiralean espero dute helmugara ailegatzea. Xabi Fernandez ibartarraren Telefonica

Team ontzia bigarren postuan dago sailkapen orokorrean, eta zortzi puntura dago Groupama sailing team, 189 punturekin. Hirugarren postuan, berriz, Puma ontzia dago 176 punturekin. Beraz, ez dute alde nabarmena baterekin zein bestearekin. Are gehiago, kontuan hartuta zortzigarren etaparen irabazleak 30 puntu batuko dituela. Azken bi etapak kontuan hartuta, 72 puntu daude jokoan oraindik.

Etaparen honen lehen 24 orduetan Telefonica Team ontzia lehen postuan jarri da, Groupama bigarren ontziarekiko hiru miliako alde duela duelarik.

Gaztañaga eta Agirresarobe, triatloiaren puntan

Zarauzko Triatloia irabazi du TTTko Maider Gaztañagak; Aimar Agirresarobe tolosarra, zazpigarren

Imanol Garcia Landa

Zarauzko Triatloian emaitza bikainak lortu dituzte eskualdeko triatloiariek. Tolosaldea Triatlo Taldeko Maider Gaztañaga ordi-ziarrak, profesionala izan gabe, proba irabazi du eta «oso pozik» dagoela azaldu du. Aimar Agirresarobe tolosarra, hau ere profesionala izan gabe, zazpigarren iritsi da helmugara eta Euskadiko Txapelketan lortutako hirugarren postua «saria» izan dela esan du. Izan ere, Zarauzko Triatloian jokoan zeuden distantzia ertaineko Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak. Gaztañagak, noski, biak irabazi ditu, eta Agirresarobe



Maider Gaztañaga helmugaratzen, eta Aimar Agirresarobe bizikleta gaineko saioan. BITTOR MUTIOZABAL



bek hirugarren egin du Euskadikoan eta bigarren Gipuzkoakoan.

Denboraldian zehar erakusten ari den sasoi baliatu zuen Gaztañagak proba irabazteko. Eliteko igerilaria izandakoa da, eta itsasoa mugitua zegoela baliatu zuen Gaztañagak tartea ateratzeko beste. Gero bizikletan eta korrika abantaila handitzea lortu

zuen. «Emaitza honen atzetik entrenamendu asko dago, eta eguneroko bizitzan puzzlea egin beharra, denbora ateratzeko», azaldu du Gaztañagak.

Agirresarobek onenekin batera egin zuen igeri, eta gero bizikleta gaineko saio ona egin ondoren, korrika zazpigarren postuari eutsi zion. «Lehenengo hamarretan

sartzea emaitza ona da eta Euskadiko podiumean egotea saria izan da», azaldu du, eta eskerrak eman dizkie Zarautzen animoak ematen egon ziren tolosarrei.

Antxintxika TT taldeko billabonatarrek ere emaitza onak lortu zituzten: Sonia Muñoz 22. izan zen eta Ainhoa Mendia 30. amaITU zuten. Mahala TTTko beste tria-

loiariek postu hauek lortu zituzten: 71. Gorka Sarasola; 74. Edu Gonzalez; 255. Iñigo Esnaola; 315. Alar Sevillano; eta 484. Aritz Iglecias.

Donostiako Sprint Triatloia

Tolosaldeko triatloiariek ere oso ondo aritu dira Donostiako Sprint Triatloian. Egoitz Zalakain (AtSS) bigarrena izan zen eta Aitor Regillaga (Mahala TTT) laugarren. Emakumezkoetan Itsaso Leundak (Saltoki Trikideak) bosgarren postua lortu zuen. Beste triatloiariek ondorengo postuak lortu zituzten: 18. Ilazki Zalakain (AtSS); 24. Alberto Vaquero (Mahala TTT); 46. Asier Saez (Mahala TTT); 133. Aitor Agirre (Mahala TTT); 149. Igor Otero (Mahala TTT); 212. Koldo Arzuaga (Mahala TTT); 219. Mikel Insausti (Mahala TTT); eta 237. Joseba Andoni Uralde (Mahala TTT). Mahala TTT bosgarren sailkatu zen taldeka.

Otaño eta Saralegi aizkolariak, gustura egindakoarekin

Urrezko Aizkolarien Txapelketan nagusietan Otañok hirugarren egin du, eta Saralegik 19 urtez azpikoetan, bigarren

I. Garcia Landa

Urrezko Aizkolarien Txapelketaren finalak jokatu ziren, herenegun, Azpeitian. Unai Otaño ibartarrak hirugarren postua lortu zuen nagusietan, eta Eneko Saralegi leitzarra bigarrena izan zen 19 urtez azpikoetan mailan. Biak gustura azaldu dira egindako lanarekin, baina baita penarekin ere, emaitza hobea lortu nahi baitzuten.

Nagusietan Floren Nazabal izan zen irabazlea, 23:45 eginez; bigarrena Atutxa II.a izan zen 24:43 eginez; eta hirugarrena Unai Otaño geratu zen 26:21eko denborarekin. Otaño gustura sentitu da egindako lanarekin, baina zutikako bigarren lanarekin galdu zuen emaitza hobea lortzeko aukera: «Adabegia atera zitzaidan, eta ez naiz zutikakoan etzandakoan bezain ondo moldatzen. Hor minutu bat galdu nuen». Txapela janztea ez zen helburu erraza, Nazabali irabaztea zaila baita, ibartarak azaldu duenez. «Nire asmoa itxura ona ematea zen, finalean sartzea nahiko sari baita», esan du Otañok. Binakakoa irabazita, eta banakakoan finalean sartuta, gustura gelditu

da ibartarra Urrezko Aizkolarien Txapelketan egindakoarekin. Orain txapelketa horretako sei onenek elkarren artean ligaxka izango dute, tartean Otaño bera, eta San Joan jaien inguruan hasiko dira.

Berriz ere azpitxapeldun

Eneko Saralegik ez zuen lortu izako ez errepikatzea. Orduan beza-la, aurtengo finalean ere gutxigatik irabazi dio Eneko Otañok 19 urtez azpiko mailan, 17 segundorengatik, hain justu. «Irabaztea nahi nuen, baina bera gehiago izan da aizkorarekin», esan du leitzarrek. Saralegik final parekatua espero zuen eta horrelaxe izan da. «Azkeneko enberrera bi segundoko atzerapenarekin sar-



Otaño, zutik eskuinetik bigarrena, eta Saralegi, makurtuta eskuinean, Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalisten artean. IBONERRAZU

tu nintzen. Gero enborrean buelta eman genuenean ere parean egin genuen, baina azkeneko unean berak esprinta jo zuen eta irabazi egin zidan».

Aurrera begira, Saralegik San Ferminetan jokatuko duen Nafarroako 3. Mailako Txapelketa du buruan. Aurrean egotea espero du eta ez badu txapelketa irabaz-

ten, behintzat bigarrena egin eta mailaz igotzea. Iaz hirugarrena izan zen eta aurtun arantza hori kendu nahi du Saralegik. Euskal Herriko 3. Mailako Txapelketan ere ariko da, baina hor beste asmo batzuekin joango da leitzarra: «Lasaia egongo naiz, hor aukera gutxiago ditudalako zer bait lortzeko».

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



BEATRIZ OTEGI ZINKUNEGI

- Goian bego -

Atzo hil zen, 70 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

Haren senarra: Rafael Irastorza; seme-alabak: Rafa eta Maixel Salaberria, Bea eta Iñaki Barrenetxea; ilobak: Oier, Naia, Alaitz, Ekain eta Maialen; anai arrebak: Pako eta Miren Larrarte, Pilar eta Inaxio Manterola, Maitere (Joakin Solanaren alarguna); koinatu-koinatak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPI T ERDIETAN, SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

OHARRA: Gorputza laguntza familia artean egingo da.

DONOSTIA, 2012ko ekainaren 12an



INAXIO INTXAUSTI URBIZU

- Golan bego -

El karpalaren dardarda erotzeren aldia gorenari gogona da neqalgama itza dagoena oso ona baldin bada zu ala zifan maña bario iritean gaba joan zera izarretara andik zure beginada izango da Aizkoretara bario ere Segurara eta Santa Barbarara

Ilobak eta iloba txikiak

Segura, 2012ko ekainaren 12a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



IDAZLE GAZTEEN BILKURA

Urtero bezala Uxola Sarien sari banaketan urduritasuna izan zen nagusi. Atzo egin zuten ekitaldia Topic zentroan eta bertan izan ziren, noski, saria jaso duten idazle gazteak eta baita euren lagun eta senitartekoak ere. Aurten, gainera, aurkezle lanetan Elene Arandia aritu zen eta abestu ere abestu zuen gazteak. Musikaria Karlos Alkala izan zen. Gazteekin batera Tolosako alkatea, Ibai Iriarte, eta Kutxa Gizarte Ekintzako ordezkari bat izan ziren. Eta nola ez Estanislao Urruzola Uxola idazlearen hainbat senitarteko ere. I.URKIZU

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Amasa-Villabona.** Zero zabor estrategiaren inguruko hitzaldia, gaur, 19:30ean, udaletxeko batzar aretoan, udalak antolatuta. Elizatik Txerminera bitarteko bizilagunei zuzenduta egongo da, eta hitzaldia euskaraz izango da.
- **Tolosa.** Tolosa Zero Zaborrek antolatuta *Errausketari ateak* ixten dokumentala ikusi ahal

izango da, gaur, 19:30ean, kultur etxean. Zero zabor taldeak azaldu duenez, dokumentala eta gero mahai inguru edo hizketaldi bat egingo dute gaiaren inguruan hausnartu ahal izateko, tolosar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

■ **Bedaio.** Igandeko, hilaren 17ko, VI. Mendi Martxan edo V. BTT Bizikleta Ibilaldian parte hartu nahi duenak www.bedaio.com webgunen,

mendimartxa@bedaio.com helbidean edo 629 199 166 telefono zenbakira deituta eman behar du izena.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeak hogeitau urte baino gehiago dituztenei zuzendutako ikastaroa antolatu du. Irailean hasiko dira eskolak, baina izena hilaren 14a baino lehen eman behar da. Horretarako 667 631 742 telefono zenbakira deitu behar da.

■ **Tolosa.** Baserri paisaiak aztertzeko bi saio antolatu ditu Tolomendik, eta lehenengoa bihar, asteazkena, izango da. Parte hartu nahi duten herritarrek paisaia.att@paisaia.com helbidera idatzi behar dute, edo 943 33 50 48 edota 686 738 152 telefono zenbakietara deitu. Hurrengo saioa hilaren 17an izango da. Bi hitzorduak 18:00etatik 20:00etara izango dira.

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurak

Uda honetan **zatoz**
HITZAren itzalera



Harpidedunen artean
Gipuzkoako Surf Federazioaren
surf taula
zozkatuko dugu



Egin harpidedun
Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra
eta jaso eguzkitako
hau opari!



Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza